

ABERRI EGUNA 2025



ABERTZALEON GARAIA, LANGILEON AUKERA

Aberri Egunez euskal Errepublikarekiko eta gure herriaren burujabetzarekiko konpromisoa berretsi nahi dugu. Klaseko sindikatu abertzale den aldetik ELAk historian zehar bere eginkizunari eutsi izan dio eskubide nazional eta sozial beteak dituen herri justuago bat eraikitzerakoan. Egun hau ospatzerakoan helburu hori nabarmentzen dugu berriro.

Aurtengo Aberri eguna dator Kongresu Konfederala aste gutxi barru izango delarik, ekainaren 2 eta 3an Bilbon. ELAn oraintxe eztabaidan dagoen ponentzian egungo testuinguruak dakartzan erronkak eta independentismoarentzako premiak sakon aztertu ditugu. Horregatik adierazpen honetan nabarmendu nahi dugu hainbat gai, zeintzuei buruz gure militanteak uneotan hausnarketa egiten ari diren eta burujabetzarako bidean sindikatuaren ekintza orientatuko duten.

EGOERA KEZKAGARRIA ESTATUAN ETA MUNDUAN

Egungo testuinguru politiko eta sozialean atzerakada demokratiko kezkarri bat nagusitu da. Mendebalde guztian zehar eskuin muturraren eta faxismoaren gorakada ari gara ikusten; hauek oinarritzko eskubideak mehatxatzen dituzte eta gorroto diskurtsoak hedatzen ari dira. Sustatzen den diskurtsoa antifeminista da, arrazista, LGTBI jendearen aurkakoa eta klima aldaketa ukatzen duena. Horri erantsi behar zaio NATO eta Europar Batasuna bultzatzen ari diren militarizazio gero eta handiagoa, belizismoa eta gerra



ABERRI EGUNA 2025



estrategia geopolitiko gisa normalizatzen duten diskurtsoen bidez. Hain zuzen, olde belizista izango da ebazpen baten gaia sindikatuaren hurrengo kongresuan.

Euskal Herrian ere halako dinamikak ez dira arrotzak. Adierazpide politiko hauek gu-rean minorien kontua izanagatik ere, ez gaude haietatik salbu. Kezkatzekoa da euskal enpresa mundua ordezkatzeko duten plataformek, sindikatu batzuek eta are Gasteizko zein Iruñeko gobernuek industria militarra garatzeko interesa adieraztea, gure garapen ereduaren funtsa beharko lirakekeen printzipioak -esaterako iraunkortasuna eta bakea- auzitan jartzen baitituzte. Hau guztia testuinguru batean non nagusi diren klima-larrial-diak, migrazio masiboak eta energia- zein material-baliabideen krisia; honek guztiak gizateriarentzat bidezko trantsizio ekosozial bat eskatzen du. Are kezkagarriagoa da adierazpide hauek gure herriko erakunde batzuen sostengua izatea.

Espainiar Estatuan lerratze autoritario hau hainbat eratan islatzen da, esaterako inde-pendentismoaren kontrako eraso argia, haren aldeko erakundeak legez kanpo jartzeko mehatxu esplizituak barne. Estatuko alderdiek, ezkerreko zein eskuineko direla ere, ha-lako diskurtsoei buruzko erreakziorik adierazi ez izanak agerian uzten du pentsamolde politiko espainiarrak oso erro demokratiko ahulak dituela, nazio aniztasunari dagokio-nez. Izan ere, ikusmolde horren oinarria logika inperial eta kolonialista da, Estatuaren baitan nazioen aniztasuna onartzeko ezgauza.

Honi erantsi behar zaio gure autogobernuari eragindako etengabeko higadura; prozesu honek, erregresio demokratikoak bezala, ez du izan mereziko lukeen erantzun insti-tuzionalik. Areago, higadura horrek itxuraz ez du inolako eraginik aliantza politikoen estrategietan, ez eta erakundeen arteko harremanetan ere. ELAren ustez euskal he-rritarrek ezagutu egin behar dute autogobernuarekin gertatzen ari dena: higadurak erantzuna izan beharko luke, eta gatazka politiko zein nazionala ikusarazi egin behar da, ez lalusotu, estatuko ezkerrek eskuinaren mehatxuaren aurrean proposatzen duen moduan.

ESTATUS BERRIA: ARDURA HISTORIKOA

Horrenbestez, instituzionaltasunari buruzko eztabaida gure agendara itzuli da. Eztabai-da irekita dago Nafarroan zein Iparraldean, eta itxuraz indartsuago Euskal Autonomia Erkidegoan; hemen hizpide da estatus politiko berri bati buruzko eztabaidari ekiteko aukera.

ABERRI EGUNA 2025



Gure historian, herri honen lurralde-zatiketa inposatu duen marko juridiko eta politikoarekin bat ez gatozen arren, ELAk estatutuaren inguruko eztabaidan parte hartze aktiboa izan du, jakinik ezartzen den markoak belaunaldi baten edo gehiagoren bizimoduari eragingo diola. ELAren iritziz, estatus berri batek euskal burujabetza oinarri-zko kontu hauetan indartu beharko luke:

- Lan-harremanen marko propioa, gure lan-baldintzei eta babes sozialeko ereduari buruz erabakitzeke ahalmena bermatuko duena.
- Euskararentzako estatus sendoa, ofizialtasun betea eta hizkuntza nazionala den aldetik merezi duen sustapena izango duena.
- Autogobernuarentzako benetako bermeak, espainiar Estatuak gure eskuduntzak sistemaz higatu ez ditzan.
- Euskal identitate nazionalaren aitortza; hau ezbairik gabeko adierazpen batean jaso behar da.
- Hego Euskal Herriko lurraldeen arteko gutxieneko konfederal bat, haien arteko lan-kidetza politiko eta administratiboa sendotuko dituen.
- Erabakitzeke eskubidea, erreforma proposamen ororen ardatz nagusi gisa.

ELAk badaki aldarri hauek urrun daudela gure herriko indar politiko nagusien adostasun puntutik. Horregatik uste dugu beharrezkoa dela eztabaida eta eskari hauek gizar-te osoaren parte hartze prozesu baten bidez gauzatzea, ez hau da, oinarria ez dadila



ABERTZALEON
GARAIA,
LANGILEON
AUKERA

2025^{ko}
ABERRI EGUNA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



ABERRI EGUNA 2025



izan elite politikoen arteko akordio bat. Eginkizun hau erronka bat da politika eta parte hartzea instituzioetan ez dela hasi eta bukatzen sinesten duten organizazioentzat. Horregatik, ELA prozesu honetan busti egingo da; izan ere, benetan aurrera egin nahi bada, euskal herritarrek izan behar dira protagonista, euren helburuak adieraziz eta aldaketak oinarritik bultzatuz.

ABERRI EGUNERAKO ERREFERENTZIA KOMUNA

Unibertso abertzalean kontraesanak eta desadostasun estrategikoek urtetan eragotzi egin dute Aberri Eguna batera ospatzea. Haatik, beste edozein nazioaren moduan gauza izan beharko ginateke gure izana eta etorkizuna erabakitzeke eskubidea batera ospatzeko.

Horregatik, ELAk parte hartuko du EH-Baterak Donostian apirilaren 11n antolatu duen ekitaldi pluralean, baita Donibane Garaziko deialdian ere, Manu Robles-Arangiz Fundazioaren bidez. Uste dugu ekinbide hauek, ikuspuntu anitza izanagatik ere, euskal gizartearen zati handi baten borondatea islatzen dutela: burujabetzarako bidean erreferentzia partekatuak artikulatzeko nahia.

GURE KONPROMISOA BERRESTEKO ABERRI EGUNA

Aberri Eguna aukera egokia da kontrabotere izan nahi duen klase-sindikalismo abertzalearekiko konpromisoa berresteko. Burujabetza politikoa eta soziala bereizi ezineko bi eremu dira: herri benetan libre da bere marko politikoa erabakitzeaz gain aberastasuna justiziaz banatzen duena eta jende guztiari duintasunez bizitzeko aukera ematen diona.

Helburu horiek soilik irits daitezke gehiengo sozial zabalagoak osatuz gero, eta eginkizun horretan milaka lagunen lan militantea da borroka horren aktiborik baliotsuenetakoa. Aberri Eguna, ELAren iritziz, ezinbesteko konpromiso horien aitortza da ere, banako zein kolektiboak. ELAk lanean jarraituko du Euskal Herri solidario, aske, feminista eta euskalduna eraikitzeke, non funtsezko erabakiak ez dituzten eliteek hartuko, eta ez diren kanpotik inposatuko; aitzitik, bere herritarrek definituko dituzte erabaki kolektiboz.